

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa-kanalaren bidez, gure jatetxeak gure kontsumitzaileek nahi dituzten produktuak merkaturatuko ditu. Gure bezeroak erakartzeko eta beharrezko informazio guztia helarazteko, hainbat kanal mota erabiliko ditugu: alde batetik zeharkako kanala; eta bestetik kanal zuzena.

Zuzena kanalaren bidez, gure bezeroek edozein informazio kontrastatu ahal izango dute zuzenean jatetxera joanda; bestalde, zeharkako kanalarik esker, gure bezeroek gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute sare sozialen bidez, gure webgunearen bidez...

Bezeroek beti izango dute eskura jatetxeko telefono-zenbakia eta gure web-orria, sor dakiekeen edozein zalantza argitzeko.

